

## **BALIABIDE KLABEAK**

Edozein proiektu martxan jartzeko orduan, funtsezkoa da identifikatuta izatea zein diren proiektua modu jasangarrian aurrera eramatea ahalbidetuko duten funtsezko baliabideak. Gure kasuan, enpresa bat muntatuko dugunez, elementu garrantzitsuenetako bat fideoak eta ontzi jangarriak fabrikatzeko langile kualifikatuak eta egokiak izatea da. Produktu horrek ezagutza espezifiko eskatzen du, bai elikagaiak manipulatzeko prozesuetan, bai elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren kontrolean. Talde bat prestatuta eta prestakuntza egokiarekin izateak ziurtatzen du produktu seguru eta jasangarri bat eskaini ahal izango dugula.

Funtsezko beste baliabide bat banaketarako langile egokiak izatea da, ez baita nahikoa produktu on bat izatea; bezeroei azkar eta eraginkortasunez eraman ahal izatea ere beharrezkoa da. Banaketako langileak arduratuko dira fideoak dagokien helmugara egoera onean iristeaz, adostutako denborak betez. Gainera, baliabide horri esker, etorkizunean gure banaketa sarea eta bezeroak handitu ahal izango ditugu, urrutiago dauden bezeroengana iritsi ahal izango baita. Hori funtsezkoa izan daiteke enpresa gisa hazteko.

Kontuan hartu beharreko beste gauza bat azpiegitura da, gure fideoak eta ontziak ekoizteko lokal egoki bat behar dugu. Hori ez da lokal bat soilik, baizik eta osasun araudira, beharrezko ekipamendura eta modu eroso eta seguruan lan egiteko azalera nahikora egokitutako espazio fisiko bat. Lokal hori izango da enpresaren gune nagusia, eta bertan egingo dira, besteak beste, gure fideoen eta haien paketeen ekoizpena, paketatzea eta kalitate-probak.

Amaitzeko, ahaztu ezin dugun beste baliabide gako bat web orri bat sortzea da, gure produktuen eskaerak egin ahal izateko. Gaur egun web orri bat izatea ez da aukerakoa, funtsezkoa eta beharrezkoa da. Webgune honek aukera ematen die bezeroei eskaintzen duguna ezagutzeko, gure produktuen berri izateko edo eskaerak egiteko, eta hori guztia modu erosoan eta edozein lekutatik. Web orri honek gure produktuei buruzko datu oso erabilgarriak biltzen ere lagunduko digu, hala nola erosketa ohiturak, gure produktuetan hobetu beharreko gauzak, dagoen eskaria... eta hori oso garrantzitsua izango da gure zerbitzua hobetzeko.

Laburbilduz, baliabide horiek (ekoizpenerako talde kualifikatua, banaketako langileak, laneko lokala eta webgunea) enpresa sendo, eraginkor eta jasangarri bat eraikitzeke oinarria osatzen dute. Bakoitzak funtzio espezifiko bat betetzen du, baina denak daude elkarrekin konektatuta, eta horiek ere beharrezkoak dira gure proiektua garatu ahal izateko eta ezarri ditugun helburuak lortzeko. Argi definitzean, hasteko behar dugunaren eta ideia enpresa errealitate bihurtzeko jarraitu behar ditugun urratsen ikuspegi askoz zehatzagoa dugu.